

NEKAZARI EUSKALDUNA



AIREA: *Urso churia*

Argi ezkillak du jotzen,
orduan dira jaikitzen;
otoitz ederrak biyotzetikan
dituzte gora eskeintzen,
guziyak berialaſen
dira lanian asitzen.

Zelai baso ta sorua
dute beren lan lekua;
beti lanian igarotzen du
udara eta negua,
arturik otz ta berua,
landutzen bere chokua.

Soro, zelaya, baratza,
munt̄oia eta belartza;
gozatutzen du modu onian
naiz egon lenago latza,
kendurik daukan garratza
jartzen du lur aberatsa.

Choko ta bazter guziya
chukunki dauka jarriya;
zuzen ta garbi inguru dena
edertasunez jantziya,
iſuririk izerdiya
da beti nekazariya.

Lanian beti denbora,
igarotzen du gustora;
alegiñ dena du beti jartzen
aiñ maite duben chokora,
zelaira eta basora,
mendira eta sorora.

Chit asko dira nekatzen,
beren lurrak maniatzen;
izerdi asko gizarajoak
nola duten ateratzen,
pitarra dute eraten
egarriya ill dezaten.


Euskaldun nekazariyak
chit maite ditu iriyak;
elkar lagunduz egin oi dute
lurretako lanteriyak,
bazter legor ta bustiyak
modu onian guztiyak.

Egun guztiyan nekatzen
dira lanian jarduntzen;
ezkill-dorreko *Angelus* ona
dutenian aditutzen
buru utsik dira jartzen
Jaunari erregututzen.

Oso illuntzen danian
gelditzen dira lanian;
orduan denak beren echera
joaten dira zuzenian
oso umore onian
Jaungoikuaren legian.

¡Askotan pozen urrena
naigabetzia barrena!
uste gabian etorririkan
denbora char ta zekena
galtzen da oyen lan dena
ustez seguru zutena.

JOSÉ ARTOLA.



ORILLAS DEL ARGÁ
(PAMPLONA)